

29. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK



Bagatoz
inklusiotik
ekitatera

2025
Azaroak 26
Kursaal

Bagatoz inklusiotik ekitatera

Egungo gizartea **etengabeko aldaketan** murgilduta dago, eta aniztasuna du ezaugarri nagusi. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da **hezkuntza sistemak** aniztasun horri erantzutea, gizartearen isla baita eta oraingo eta etorkizuneko herritarrak prestatzeko ardura baitu.

Jardunaldi hauetan, **hezkuntza inklusiboa** izango dugu ardatz, ikasle guztientzako kalitatezko eta ekitatezko hezkuntza bermatzeko bidea. Elkarrekin aztertuko ditugu inklusiora gerturatzen gaituzten praktikak, gaur egungo erronkak eta aurrea begirako hartu beharreko erabaki eta konpromezuak. Bereziki, **profesionalen eginkizuna** azpimarratuko dugu, helduon **begirada** heztea eta **prestakuntza** eguneratua izatea gako bilakatzen baitira.

Inklusioa ez da soilik legeen betetzea, **konpromezu etiko eta pedagogiko bat ere bada**, denok batera eraiki nahi dugun etorkizun bidezkoago baten aldeko konpromezua.

Egitaraua

09:30-10:00 **Harrera eta dokumentazio banaketa**

10:00-10:30 **Irekiera**

10:30-11:30 **Serge Ebersold**
"Irisgarritasuna, norbanakoari egokitutako eskola inklusiboaren baliabidea".

L'accessibilité, une ressource pour une école inclusive adaptée à chacun.

11:30-12:00 **Atsedena**

12:00-13:00 **Ane Urizar Zugazagoitia**
"Euskaldun guztiak ez gara zuriak".

13:00-14:30 **Bazkaltzeko tarte**

14:30-15:30 **Mel Ainscow**
"Hezkuntzan praktika inklusiboak sustatzen: nazioarteko esperientzietatik ateratako ikasgaiak".

Promoting inclusive practices in education: lessons from international experiences.

15:30-16:30 **Uxue Fernandez Lasa**
"Inklusioa jarduera fisikoan: argi-itzalak".

16:30-16:45 **Itxiera**

Serge Ebersold

"Irigarritasuna, norbanakoari egokitutako eskola inklusiboaren baliabidea"

"l'accessibilité, une ressource pour une école inclusive adaptée à chacun"

Serge Ebersold CNAMeko irakaslea da. Irigarritasunaren katedraduna da eta irigarritasunaren soziologia garatzen du. Bere ikuspegian, irigarritasuna giza ezaugarri bati datxekio, zeinaren bidez pertsona orok herritartasunera sartzeko eskubidea azpimarratzen den, pertsona orok bere segurtasunerako beharrezko babes-formak eduki ditzan eta besteenganako elkarrekintza indartu dadin, jendartea eraikitzeko gisan. Aurretik, soziologiako irakaslea izan zen Paris Lumières Unibertsitateko INSHEAn. Bertan sortu zuen irigarritasuna, ezgaitasuna eta hezkuntza- eta eskola-jarduerak lantzen dituen ikerketa-taldea (GRAHPES), baita «ezgaitasuna, norbanakoa, gizartea» izeneko ikerketa-masterra ere.

2006tik 2009ra arte, OCDEko analista izan zen, 1992tik 2006ra arte, Estrasburgoko unibertsitatean irakasle-ikertzaile izan zen, non ezgaitasunaren soziologia irakatsi eta pertsona zaurgarrien hezkuntzarako eta enplegurako sarbidea ikertu zuen.

Nazioarteko esperientzia zabal du, Europako Batzordearekin, NBErekin, OCDErekin eta hezkuntza inklusibo eta egokiturako Europako Agentziarekin egindako lankidetzaren bidez, baita OMSren ezgaitasunaren sailkapen nazioartekoaren berrikuspen-prozesuan izandako parte-hartzeagatik ere.

Bere azken liburua, 2024an argitaratua, *Le temps de l'accessibilité* izenekoa da, Paris, L'Harmattan.



Ane Urizar Zugazagoitia

"Euskaldun guztiak ez gara zuriak"

Ane Urizar Zugazagoitia doktorea da Hezkuntza, kulturartekotasunaren esparruan (Mondragon Unibertsitatea). 2001etik gaurdaino, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean lan egin du ikerlari eta irakasle gisa, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Humanitate Digital Globalak Gradutan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Masterrean.

Bai Graduetan eta bai Masterrean migrazio fenomenoari, identitateari, kulturartekotasunari eta kulturarteko hezkuntzari lotutako gaietan aritu da. Horrez gain, parte hartu du eskualdeak, Ministerioak, eta Europar Batasunak finantzaturako proiektuetan.

Aldizkari zientifiko eta dibulgatiboetan argitalpenak ditu, kongresu eta jardunaldietan parte hartu du bai antolatzaile eta bai hizlari moduan eta ikerketa egonaldiak egin ditu Kanada, AEBetan eta Galesen.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxetan transferentzia- eta aholkularitza-proiektuetan parte hartzen du, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko Arrakala ikerketa taldeko beste kide batzuekin batera.



Mel Ainscow

"Hezkuntzan praktika inklusiboak sustatzen: nazioarteko esperientzietatik ateratako ikasgaiak"

"Promoting inclusive practices in education: lessons from international experiences"

Mel Ainscow britainiar hezkuntza-aditu ospetsua da, bereziki hezkuntza inklusiboaren arloan egindako lanagatik ezaguna.

Manchesterreko Unibertsitateko irakasle emeritua da. Glasgowko Unibertsitateko Hezkuntza fakultatean irakaslea eta Queensland University of Technology-ko irakasle elkartua da

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearekin eta hainbat gobernuarekin lan egin du, hezkuntza-sistemak inklusiboago bihurtzeko politikak garatzen lagunduz.

Erresuma Batuko eskola-sistemaren berrikuntza-prozesuetan aholkulari eta ikertzaile garrantzitsua izan da.

Inklusioari, eskola-hobekuntzari eta lidergoari buruzko liburu eta artikulua ugari idatzi ditu, eta bere lanek nazioarteko eragina izan dute. 2025ko otsailean argitaratu zuen bere azken liburua "Un giro inclusivo a la equidad: Desarrollo de sistemas educativos y centros escolares más inclusivos".



Uxue Fernandez Lasa

“Inklusioa jarduera fisikoan: argi-itzalak”

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktore (EHU, 2014)
“Emakume pilotariak: izaera, bizipen eta sentipenak” emakume pilota-
rien errealitatearen inguruko tesia eginda. EHUKo Heziketa Fisikoa eta
Kirola saileko irakasle-ikertzailea da, Hezkuntza eta Kirol fakultatean,
Kirol atalean. GIKAFIT (Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ierkuntza
Taldea) eta AKTIBOKi lan taldeetan ari da eta UEUKo kide da. Ge-
nero-ikerketak eta ekitate zein justizia sozialaren inguruko ikerlanak
garatzen ditu, jarduera fisikoaren eta kirolaren gizartearen eraldaketa-
rako gaitasunaren ikuspegian oinarrituz. Argitalpen, ikerketa proiektu,
ikerketa-sare eta egitasmo ezberdinetan parte hartu du genero-ikus-
pegia, sexu-genero aniztasuna eta talde zaurgarrien errealitateetan
sakonduz, besteak beste.



Ez galdu aukera!

Jardunaldietan izena-eman nahi baduzu sartu gure webgunean eta bete [inprimakia](#).



Prezioa:
50€ pertsonako.

Parte hartu eta ikasi, esperientzia eta sare berriak sortzeko aukera paregabea izango duzu!



1KASTOLAK